



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

INDAR ITURRI FRESKOAK

SARIA:
Lesakako
LINDDURRENBORDA
Sagardotegian
bi lagunentzako
otordua

2016ko OTSAILA 146. ALEA

IZENAK IZAN



goiEner

Energia berriztagarriak ez dira gauza berria, baina badirudi azken urteetan garrantzia handia hartu dutela egun pairatzen dugun aldaketa klimatikoa bezalako arazo potoloei aurre egiteko garaian. Gaur egun baditugu Euskal Herrian energia mota horiek gure etxetara ekartzeko hainbat aukera, eta horietariko bat dugu GoiEner Kooperatiba. Horri buruz solastuko gara MIREN OLATXEA etxalartarrarekin. Miren emakume gazte aktibista dugu, kooperatibako kide eta boluntario dena.



Ikusiko duzueenez, Mireni egindako elkarrizketako galderak falta dira. Beraz, zure lehendabiziko egin beharra erantzunei behean nahasita dauden artetik galdera egokia ematea izanen da:

ERNE, SARIRAKO!

- a) Zergatik dira beharrezkoak energia berriztagarriak?
- b) Zer da GoiEner?
- c) Kontzientziaturik al gaude energia berriztagarrien gaiarekin?
- d) Zer dela eta egin zinen kooperatibako partaide eta zein paper betetzen duzu bertan?
- e) Zein energia berriztagarri ekoizten ditugu Euskal Herrian?
- f) Zer erranen zenioke kooperatibaren parte izan nahi duenari?
- g) Zenbat bazkide ditu GoiEnerrek gure eskualdean? Zer egin behar da bazkide izateko?
- h) Zer egin dezakegu kontzientziazioa lantzeko?
- i) Nola eta non ekoizten du GoiEnerrek energia?



IZENAK IZAN



1.

GoiEner irabazi asmorik gabeko herritar kooperatiba energetikoa da. 2011. urtean hasi zuen bere ibilbidea Goierrin, eta gaur egun 3.700 bazkide baino gehiago gara, eta %100 berriztagarria den energia elektrikoa kontsumitzen duten 3.688 bazkideren argi indarraren kontratuak kudeatzen ditugu.

GoiEnerren eredu energetiko berri baten bila egiten dugu lan, ez baitugu onartzen oinarritzakoa den baliabide bat, espekulaziorako gai bihurtzea. Energia garbia, modu arduratsu eta jasangarrian ekoiztu eta kontsumitzearen alde egiten dugu apustu. Lanketa honetan, beste hainbat esparru ere ari gara jorratzen: ekoizpena, sentsibilizazioa, informazioa eta pobrezia energetikoa beste gaien artean.

2.

Betitik gustatu izan zait energia berriztagarrien mundua, ideia bikaina iduritzen zait lurrak ematen dituen errekurtsu agortezinetatik energia lortzeko ideia.

Bertzalde, lotsagarria, tamalgarria, eta, batez ere, xuhurra iduritzen zait sektore honek egiten duen lana (pertsonekiko eta baita munduarekiko ere).

GoiEner proiektuak, egoera hau aldatzen pausuak emateko aukera eman dit, kontzientziatik akziora pasatzeko tarteak ez baita erraza! Baina poliki-poliki gauzak aldatzen joateko bidean dagoela GoiEner, argi ikusten dut eta bertan egoteak pozten nau.

Bertan, boluntario egiten dut lan, solasaldi informatiboak ematen, beste elkarteekin elkarlanak aitzinera eramaten, irratian berri ematen...

Orain, Nafarroan, Generazioan zentratuko den kooperatiba ahizpa sortzen ari gara, eta bertan ere egonena naiz :-)

3.

Energia betirako izan nahi badugu, ezin dugulako bere ekoizpena mugatuak diren baliabide batzuetan oinarritu, orain arte bezala (petroleoa eta deribatuak, ikatza, uranioa, gas naturala...), horiek bukatuko direlako, eta gainera, munduarentzako ondorioak dituelako beraiek erabiltzea (CO2, erradiaktibitatea, N2...)



IZENAK IZAN

4.

Oraindik, GoiEnerrek ez du bere energia propioa ekoizten, nahiz eta ekoizle ttiki batzuei energia erosi.

Hori lortzeko bidean gaude, eta horretarako ari gara Nafarroan ekoizpen elkarteak sortzen. Badira lan taldeak gai hori lantzen ari direnak, baina modu "ofizialean" elkarte horren bidez egingen dugu. Hagitz gutti falta da hori gertatzeko!

5.

Gure eskualdean gutti gara, 26 bat lagun.

Bazkide, web orriaren bidez egin zaitezke, bertan tarifen informazio guzia dago. Inprimaki bat bete behar da eta zurekin kontaktuan jarriko da GoiEnerreko jendea.

Hilabeteko lehendabiziko ortziraletan, Beran dagoen Bidazi elkartearen azokan egoten naiz ni, arratsaldeko 18etatik 20etara, laguntza eskaintzen.

6.

Nik uste, geroz eta gehiago, baina akziora pasatzeko orduan (hau da, ados nago, energia berriztagarriak dira etorkizuna) kosta egiten zaigu benetazko aldaketa bat egitea gure ohituretan (energiarengatik ordaintzen dugun faktura, hornitzailez aldatu adibidez) eta hori da zoritxarrez, kontzientziaturik gaudela erakusteko egiazko modu bakarra (aldaketarako balioko duena).

7.

Nik uste, kontzientziazioa nahiko landua dagoela (beti ere, irakurketa hagitz interesgarriak daudel!), orain akziora pasatzeko garaia dela iduritzen zait.

8.

Denetarik: eguzki plakak, biomasa, haize errotak, hidraulikoak...

9.

Animatzeko, pausu ttiki eta erraza dela aldaketa egitea edo bazkide soil izatea eta onura handiak ekar ditzakeela energia modu ez lukratibo eta berriztagarria ekoiztearen alde apustu egiteak!





Pasa den urtearen **bukaeran** Parisko konferentzia burutu zen klima aldaketaren inguruan jarduteko eta aldaketa horrek dakarren ondorioa **ekiditeko**. Arazo honi irtenbide emateko erabaki politikoak beharrezkoak dira, Lurraren etorkizuna jokoan baitago. Planetaren geroa ziurtatzeko neurri ezberdinak jarri behar dira, horien artean, energia berriztagarrien bultzada eta ezarpena hagitzen garrantzitsuak dira. Baina zer dira energia horiek? Ondorengo testuan energia horiek ezagutzeko **zertzelada** batzuk bildu ditugu. **Irakurgai**an (paragrafo honetan ere bai) **hitz batzuk azpimarraturik** daude, pareka itzazu behean ageri diren sinonimoekin.

Iturri naturaletatik sortutako energia motak dira berriztagarri deitzen direnak. Anitz badira ere, garrantzitsuenak eguzki-energia, eolikoa, hidraulikoa, itsasaldiak, biomasa eta geotermikoa dira. Iturri natural horiek agorrezinak dira, duten energia kantitate izugarriagatik eta neurri naturalak erabilita birsortzeko gai direlako. Beren kutsadura efektua txikiagatik ere **arras** interesgarriak dira.

Azken urte hauetan bultzada handia izan dute hainbat arrazoi direla medio: horiek ingurunean integratzeko arazoak konpondu behar dira; **halaber**, herrialde guztietara **heltzeko** eta irregulartasun zein aniztasun geografikoak orekatzeko politikak eta inbertsioak ere gauzatu behar dira, ingurumenaren degradazioa, herri ezberdinen arteko desoreka energetikoa eta erregaien aniztasuna dela medio. Energia horiek ordezkioak bilakatzen ahal dira eta euren kontsumoa gizarte baten aurrerapena eta ongizatea neurtzeko modu egokia dira.

Historian zehar izan duten erabilera eta gaur egungoa aztertzerakoan aipatu behar da beti erabili izan direla: bela nabigazioa, haize edo ur errotak, eguzki energia aprobetxatzeko tresnak... Gaur egun, energia berriztagarria elektrizitate kontsumoaren %20 da, hortik %90 energia hidraulikoa izanik. Beste energia guztien erabilera nahiko **baztertua** dago: biomasa %5,5, geotermikoa %1,5, eolikoa %0,5 eta eguzki energia % 0,5. Estatuan azken urteetan energia berriztagarrien urteroko salmenta 10 aldiz baino gehiago biderkatu da. Hainbat adituren arabera, energia berriztagarrien %100eko **ekoizpena** teknikoki bideragarria eta ekonomikoki **jasangarria** da. Beraz, borondate politikoa behar da urtetik urtera horien erabilera handitzeko.

Energia mota horiek **abantailak** eta desabantailak dituzte. Alde onak zerrendatzean honako hauek aipatzen ahal dira: ingurumenari ez diote ia kalterik egiten; ugariak dira, baliabide naturalen **ustiapena** suposatzen dute, agorrezinak dira, ingurumenarekin **adeitsuak** dira eta ingurumenean eskura daitezke. **Dena den**, desabantailak aipatzean honako hauek zerrendatzen ahal dira: izaera **lausoa** dute, arazo ekologikoak sorrarazten dituzte (aerosorgailuak arriskutsuak dira hainbat hegaztiren zatitza; itsaso eta erreketan bizi diren hainbat espezieen populazioa izugarri jaitsi da...); gainera, zenbait kasutan kutsagarri suertatzen dira. Beraz, energia horiek ingurunean integratzeko arazoak konpondu behar dira, eta herrialde guztietara ailegatzeko eta irregulartasuna zein aniztasun geografikoa orekatzeko politikak eta inbertsioak ere gauzatu behar dira.

- 1.- era berean = _____
- 2.- Halere = _____
- 3.- adiskidetsuak = _____
- 4.- alde onak = _____
- 5.- produkzioa = _____
- 6.- esplotazioa = _____
- 7.- zehaztugabea = _____

- 8.- akabailan = _____
- 9.- saihesteko = _____
- 10.- xehetasun = _____
- 11.- aski = _____
- 12.- alboratua = _____
- 13.- eramangarria = _____
- 14.- ailegatzeko = _____



ZER OTE?

Energia berriztagarrien informazioa osatzeko, elkar itzazu haizeak nahasi dizkigun argazki, izen eta definizioak.



6 Biomasa _C_

____ Energia geotermikoa ____

____ Itsas-energia ____

____ Energia hidraulikoa ____

____ Energia eolikoa ____

____ Eguzki-energia ____

A - Hiru itsas fenomeno daude: olatuak, itsasaldiak eta sakontasunaren araberako tenperatura-aldaketak. Hiru fenomeno horiek elektrizitatea sortzeko erabiltzen dira. Itsas-zentralak soilik itsasaldiak asko mugitzen diren tokietan daude.

B - Lur barneko beroaz baliatuz lortzen den energia da. Energia geotermikoa bi modutara erabil daiteke, beroaren jatorriaren funtzioan eta lurzorua masa handiak metaturiko beroa aprobetxatuz.

C - Erregai modura edo ekoizpen industrialerako erabil daitekeen material biologikoari deitzen zaio biomasa.

D - Ibaietako ura da energia honen sortzailea. Ura urtegi batean bilduko da, eta gero, altuera handi batetik erortzen utziko da turbina baten gainera, eta turbina horrek, jiratzean, elektrizitatea sortuko du. Zentral hidraulikoak jartzeko lekuriak aproposenak presetako ur-jauziak dira.

E - Eguzkitik Lurrera erradiazio elektromagnetiko itxuran iristen den energia mota da. Eguzkia energia iturri agorrezina eta berriztagarria da, eta energia termikoa edo elektrizitatea sortzeko erabiltzen da batez ere.

F - Haizea erabiliz lortzen den energia da, hau da, aire korronteek sortutako energia zinetikoa erabiliz.

ERANTZUNAK

BITXILOREAK (5. or.): 1- Halaber; 2- Dena den; 3- adeitsuak; 4- abantailak; 5- ekoizpen; 6- ustiapena; 7- lausoa; 8- bukaeran; 9- ekiditeko; 10- zertzelada; 11- arras; 12- baztertua; 13- jasangarria; 14- heltzeko

ZER OTE? - (6. or.):

6_ Biomasa _C; 4_ Energia geotermikoa _B; 5_ Itsas-energia _A; 3_ Energia hidraulikoa _D;
2_ Energia eolikoa _F; 1_ Eguzki-energia _E

JOLAS NAHAS - (10. or.):

Ezker-eskuin: 2. BERRIZTAGARRI; 4. AGORREZIN; 5. BAZKIDE; 6. EKOIZPEN; 8. HORNITZAILE; 9. BOLUNTARIO
Goititik-beheiti: 1. JASANGARRI; 2. BALIABIDE; 3. IRABAZI; 7. KOOPERATIBA

145. aleko sariketa erantzunak - SUKALDEA DANTZAN (4. or.):

1.- f; 2.- d; 3.- a; 4.- c; 5.- e; 6.- b

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **3-4. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria:

**Lesakako LINDDURRENBORDA
sagardotegian
bi lagunentzako otordua**

145. aleko irabazlea:

Maria Luisa Goñi Mutuberria
Aurtizkoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - **Lesakan**; Xagu - **Arantzan**; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - **Donezteben**; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - **Leitzan**; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak otsailaren 26a baino lehen bidali itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

IZENAK IZAN (2-3-4. or.):


1 - _____	4 - _____	7 - _____
2 - _____	5 - _____	8 - _____
3 - _____	6 - _____	9 - _____



goienener



JOLAS NAHAS



Ezker-eskuin

2. Naturalki berriztatzen diren baliabideak direlako, giza ikuspegitik agortzeko arriskurik ez duen energi iturria. Esate baterako, eguzkia, haizea, biomasa, etab.

4. Agortzen ez dena.

5. Elkarte edo elkargo bateko kidea.

6. Ekoizteko ekintza eta horren ondorioa; produkzioa.

8. Bezeroa, janari, salgai, etab.ez hornitzen duen pertsona zein tokia.

9. Borondatezkoa (bereziki soldaduz esaten da).

Goititik-beheiti

1. Jasan daitekeena, eramangarria.

2. Bereziki herri batek dituen edo erabil ditzakeen ondasun edo ahalbide materialak.

3. Dirua helburu ez duena, baina lehendabiziko hitza bakarrik.

7. Bazkide bakoitzaren eskubide eta eginbeharrak berdinak diren eta irabaziak haien artean banatzen dituen enpresa-mota.

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Bortziriak eta Malerrekako
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK
eta Baztango Udala**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka
Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, beheka, 31740 Doneztebe.

bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

